# RSC ETA JARDUERA MEMORIA ELIKA 2018

# AURKIBIDEA


A. Zuzendaritzaren Gutuna
B. 2018. urtearen laburpena
C. Memoria egiteko metodoa
1. Elika Fundazioaren Izaera
a. RSC politika
b. Gobernu-organoak.
c. Aliantzak eta interes-taldeak
d. Lan-arloak
2. Kultura estrategikoa
a. Misioa
b. Ikuspegia
c. Balioak
d. Helburu estrategikoak
e. Lorpenak
3. Dimentsio ekonomikoa
a. Balioa handitzea
b. Balantzea eta kontuak
4. Gizarte-dimentsioa
a. Talde profesionala
b. Gizartea eta ingurunea
5. Ingurumen-dimentsioa
a. Ingurumenarekiko konpromisoa
b. Ingurumen-zeregina
6. Etorkizuneko erronkak
7. Edukien taula (GRI)

## A. ZUZENDARITZAREN GUTUNA

ELIKA Eusko Jaurlaritzaren eskutik jaio zen, Elikagaien Segurtasuna hobetzen laguntzeko; izan ere, alderdi hori oso interesgarria da gizartearentzat oro har. Hori dela eta, gure interes-taldeei (administrazioa, agintaritza eskudunak, elikakateko kideak eta ikerketa-zentroak) begira sortutako informazio teknikoak eta dibulgatiboak gizarteari ere begiratzen dio. Halaber, ingurumena errespetatzen dugu, prestakuntza eta komunikazio elebiduna bultzatzen dugu (euskara eta gaztelania), eta erakunde irisgarriaren, gardenaren eta hurbilaren irudia ematen diogu euskal gizarteari oro har, kalitateko lana eginez, horrek balioa eta babesa ematen baitie Elikagaien Segurtasunaren inguruan dauden egiturei.

Nolanahi ere den, gure misioaz eta legea betetzeaz harago, gizarte-erantzukizuneko estrategia bat sortu dugu. Horretan, “gizartea” definitu dugu, gizarte-konpromisoa duen talde gisa. Halaber, oinarrizko jarduera-lerroak eta gizarte-konpromisoko proiektu batzuk definitu ditugu. Zenbait ekimen nabarmentzen ditugu horren inguruan:

- ✓ Gardentasun Atari bat dugu.
- ✓ Ingurumena zaintzen eta errespetatzen dugu, besteak beste berrerabiltzea, birziklatzea, hondakinak banatzea eta abar.
- ✓ Gure erakundea Q-EPEAko (Euskal Erakunde Publikoak Bikaintasunerantz), FOARSEko (Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Araba Foroa) eta FRMko (Munduko Landagunea) kide da.
- ✓ Berdintasuna sustatzen dugu: Berdintasunaren aldeko Saileko Talde Teknikoko gizon eta emakumeen berdintasunerako erakunde publikoen sareko kide gara.
- ✓ Euskara erabiltzea sustatzen dugu.
- ✓ Kausa solidarioetan parte hartu eta horiek babesten ditugu.

Beraz, kontu estrategikoa da EGEaren politikarekin jarraitzea, eta, lan horretan, gure interes-taldeen laguntza eta jarrera ona ditugu: benetan eskertzen diegu beren ekarpena.

Sin.: Miren Arantza Madariaga Aberasturi

ELIKAKO zuzendari-gerentea

## B. 2018. URTEAREN LABURPENA

### 1. Aholkularitza zientifikoa eta teknikoa

Euskal administrazioari aholku eta euskarri teknikoa ematen jarraitu dugu, hala zuzenean nola zeharkako idazkaritza teknikoen bidez. 2018an honako jarduera hauek nabarmendu behar dira:

✓ **Arriskuen Ebaluazioko** sistematika indartzea, Elikagaien Segurtasunean erabakiak hartzeko oinarri gisa: Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordeko, Arriskuen Mahai teknikoko eta Elikagaien Segurtasuneko Batzorde Kudeatzaileko Idazkaritza teknikoa. 2018an EAEko **Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordearen eraketa berriztatu** da.

✓ Aholkularitza teknikoa 2017-2020 aldirako **Elikagaien Segurtasunari buruzko Ikerketaren Koordinazio Planaren** urteko zabalkundean: Elikagaien Segurtasunari buruzko Ikerketaren Koordinazio Mahaiko idazkaritza; ikerketa-beharrak identifikatu eta horien artean lehentasunak ezartzea, eta proiektuetan aplikatzea; ikerketa-zentro ezberdinen proiektuetako parte-hartzea koordinatzea; eta ikerketa-plataforma dinamizatzea.

✓ Babesa alerten komunikazioan, **Barneko Erantzun Oharrak** sortzea: Glifosatoa, toxina estafilokozikoa gaztan, listeria pasta biguneko gaztetan, gaztak baztertzea toxina estafilokozikoaren eraginez, esne gordinaren zuzeneko salmenta eta Afrikako txerri izurria.

✓ **Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialaren Plan Autonomikoa** dinamizatzea eta, horretarako lan handia egitea lan-taldeen (6 Idazkaritza Tekniko) aholkularitza- eta dinamizazio-arloan eta tartean diren administrazioen arteko koordinazio-arloan (foru-aldundiak eta DEIko zenbait zuzendaritza).

✓ Honako plan eta programa hauek sustatu eta dinamizatzea:

- Abeltzaintzan **antibiotikoen erabilera murrizteko** erakundeen arteko jarduketa-programa (RAM-Euskadi).
- Euskadin **Q Sukarraren** Zaintza eta Kontrol Plana.
- Euskadin **fauna basatiaren** Zaintza Plana.
- **Alerta protokoloak** Animalien Osasunean.
- Ardi Latxaren Dinamizazio Plana sortzeko prozesuan parte hartzea.

✓ Landare eta ogi/gozogintza/irinak sektoreentzako betekizun higieniko-sanitario **malgutuak** garatzen dituzten **Instrukzio Teknikoen** izapidetze juridikoan laguntza ematea.

✓ **Lehen mailako ekoizpeneko jarduera berrien betekizun higieniko-sanitarioak** ezartzea abeltzaintza-ustiategietan: eztia eta barraskiloak.

✓ Merkatu eta azoketan bete beharreko betekizun higieniko-sanitarioei buruzko aholkularitza. Euskadin **nekazaritzako elikagaien produktuen salmenta zuzena** arautzea.

✓ Baliozkotze-prozesua ezartzea **bioziden** aplikaziorako prestakuntzarako, eta laguntza ematea **animaliak garraiatzeko ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko zentro** txikiak baimentzeko autonomia-araudia sortzeko prozesuan.

✓ Euskadin **Elikagaiak Xahutzearen aurkako Estrategiaren zabalkuntza**: Mahai Operatiboa sortzea, Jarduketa Plan bat gauzatzea, Elikagaiak Xahutzearen aurkako Euskadiko Plataforma sortzea, Elikagaiak Xahutzearen aurkako Manifestuaren sinadura publikoa eta sentsibilizazio-ekintzak.

✓ Ekimen horiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sustatzen dituen **Euskadin Elikadura Osasungarrirako Ekimenen** zabalkuntzan parte hartzea , ekimenetako baten buru izanik (Sasoiko Elikagaien Kanal Anitzeko Egutegia) eta beste 4 lan-taldetan parte-hartze aktiboa mantenduz (Informazio Iturri egokiak, elikadura osasungarriaren sustapen mediatikoa, elikagaien etiketa eta osagaien zainketa, eta elikagai berezien kontsumo arduratsua eta erantzulea).

✓ **Euskadiko Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren** zabalkuntzan parte hartzea.

✓ Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sustatutako Ingurumenaren IV. Esparru Programan parte hartzea, **Elikadura Zirkularraren** Funtsezko Proiektuaren buru izanda.

✓ IHOBEk koordinatutako Euskadiko **Ekonomia Zirkularrerako Estrategiaren** diseinuan parte hartzea.

✓ ZTBPko **RIS3 Espezializazio Estrategia Adimendunaren** zabalkuntzan parte hartzea, Katilun (Nekazaritza eta elikaduraren sektorean, eta landa zein itsasertzeko ingurunean lankidetza-berrikuntzarako espazioa) sartzearen bidez.

✓ **Eskola-jangeletako menuetan tokiko produktua sartzeko** eta horren kudeaketa hobetzeko helburua duten lan batzordeetan parte hartzea.

✓ Elikagaien Segurtasunari eta Iraunkortasunari buruzko Europako 2 Sareetan parte hartzea: **ERANET Co-fund SusAn** "Animalia-ekoizpenaren sistema iraunkorren Europako Sarea" eta Arrisku kimikoak Ebaluatzeko OMEren Sarea.

## 2. Elikakateko operadoreentzako laguntza eta aholkularitza

Jarraitu dugu Elikagaien Segurtasuneko politiken zabalkuntzak aholkularitza-ekintzak gauzatzen, **guztira 49 lan-taldeetan inplikatutako agente guztien lankidetza eta parte-hartzearen** bidez. Guztira, 95 bilera egin ditugu.

Gure Interes Taldeen 172 eskaerari erantzun zaie (% administrazioak, % 37 elikakateko operadoreak, % 10 zentro teknologikoak eta unibertsitateak, % 6 komunikabideak eta % 3 herritarrak). Halaber, 12 prestakuntza ikastaro/jardunaldi antolatu dira, 420 pertsonaren parte-hartzearekin eta 8,2ko asebetetze-mailarekin.

- **Antibiotikoen aurreko Erresistentziak** jardunaldia; otsailaren 8an (Mungia).
- **Erauzte Arrantzaren Lehen Mailako Ekoizpeneko** Higienearen Kontrol Programa Ofizialari buruzko ikastaroa, arrantza ikuskatzaileei zuzendua; martxoaren 21ean (Getaria).
- **Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa emaitzak** transferitzeko V. Jardunaldia; martxoaren 15ean, Zamudioko Teknologia Parkean (Bizkaia).
- **Sektoreari zuzendutako malgutzearen** arloko prestakuntza-ikastaroak: apirilaren 26an eta 27 eta maiatzaren 5ean (Abadiño, Anoeta eta Arkaute), eta **sektoreko agenteei zuzendutakoak** (IKEak, LGEak, FAak…): uztailaren 13an (Amorebieta-Etxano).
- **Elikagaien Segurtasunari** buruzko ikastaroa **gaztandegietan**: urriaren 25ean (Idiazabal) eta azaroaren 6an (Arkaute).
- "*Elikadura-sistema iraunkor baten alde: **0 xahuketa***" jardunaldia; azaroaren 29an (Vitoria-Gasteiz).
- Sektoreari zuzendutako prestakuntza-ikastaroak, **kontserba begetalak prestatzearen** arriskuak ezagutzeko: abenduaren 11n (Markina) eta abenduaren 12n (Zaldibia).

Horrez gain, Elikako kideak beste erakunde batzuek antolatutako **23 jardunaldi edo ikastaroetan hizlari** gisa parte hartzera gonbidatu gaituzte, eta **4 ekitaldiren antolakuntza batzordeetan** ere parte hartu dugu: Elikagaien Segurtasunaren Nazioarteko Egunaren Zientzia Batzordea, Pint of Science jaialdiaren Antolakuntza Batzordea (Vitoria/Gasteiz), Animalien Elikadurari buruzko Nazioarteko VI. Kongresua eta Valentziako Nazioarteko Unibertsitateko (VIU) Elikagaien Segurtasuneko Masterraren Adituen Batzordea.

Era berean, webgunean eskuragarri ditugun tresnak sortzen eta mantentzen jarraitu dugu, elikagaien ekoizpen-katean Elikagaien Segurtasuna sustatzeko, hala nola Legeriaren datu-basea, Pentsuen Arriskuen Mapa, Elikagaien Segurtasunaren Sektorekako Betekizunak, Etiketatzeari buruzko mikrositea, Kontsumitzailearen bloga eta abar.

## 3.- Informazioa zabaltzea eta jakinaraztea

EFSAk (Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza) eta nazioartean Elikagaien Segurtasunaren arloan diharduten agentziek argitaratutako informazio guztia hartzen dugu, eta gure interes-taldeen esku jartzen, hainbat formatutan (albisteak, txostenak, artikuluak, informazio-materiala, infografiak, etab.). baita gure ohiko argitalpenen bidez ere (**webgunea, buletinak, blogak, sare sozialak, etab.**).

2018an, Elikagaien Segurtasunari lotutako **163 albiste** argitaratu ditugu webgunean, baita **18 informazio-material** (artikuluak, infografiak, liburuxkak, posterrak, etab.), **11** "ELIKABErri" **hileko buletin** eta **6 lauhilekoko txosten** (**pentsu eta elikagaien alerta-sareen** jakinarazpenei buruz) eta **2 urteko txosten** (adierazitako alerten bildumak) ere.

Webguneari dagokionez, aurten webgune korporatiboa berritu dugu, wordpress formatuaren bidez. Batez bestez, **30.000 erabiltzaile** ditugu **guztira** hilean; eta, **guztira**, **610.841 orrialde ikusi** dira.

Era berean, dibulgatiboagoak diren beste formatu batzuk ere baditugu, Segurtasunaren arloko albisteak herritarrei helarazteko; hauek, adibidez: **Wiki-Elika**, Elikadurari buruzko 1000 termino baino gehiago jasotzen ditue, eta batez bestez, 19.000 orrialde ikusten dira hilero; **Kontsumitzaileei zuzendutako webgunea**, batez bestez, hilero 14.000 bisita jasotzen dituena; eta **Kontsumitzailearen bloga**, batez bestez, hilero 1.000 bisitarekin. Horrez gain, Elikagaien Segurtasunari buruzko informazioa zabaltzen dugu sare sozialetan (6.682 erabiltzaile **Facebook**-en**, Twitter**-en, **Linkedin**-en…). Alderdi hau 2019an eraberrituko da.

Urtero, **ZT-AL Txosten** bat osatzen dugu, urtean zehar bildutako informazio garrantzitsuarekin. Urteko kudeaketa planari eragiten dioten erabaki estrategiko askorako, txosten hori hartzen da oinarri.

## 4.- Erakundearen kudeaketa bikaina gauzatzea

2018an kanpoko aholkularitza-enpresa baten dinamizatutako parte hartzeko prozesu bat egin dugu, **Komunikazio Estrategia Korporatibo** bat gauzatzeko. Prozesu horretan, gainera, gure **Argumentu Sistema** berrikusi dugu, Elikan gauzatzen dugun lanaren balioa azpimarratzeko. Eta, horrez gain, **Interes Taldeen Mapa** berri bat sortu dugu, harremanak ditugun horiekin eta gure zerbitzuak bideratzen dizkiegunekin.




Zilarrezko Q lortu ondoren (Kudeaketa Bikaintasunari emandako euskal saria, 2014an jasotakoa), gure kudeaketa-sistema Kudeaketa Aurreratuko Eredu berrira egokitzeko lanean jarraitzen dugu. Ildo horretan, eta 2016an konpromiso diploma jaso eta gero, aurten kanpoko kontraste batera aurkeztu gara berriro Euskaliteko ebaluatzaileekin, eta berriro ere lortu dugu Kudeaketa Aurreratuarekiko 2018ko konpromiso diploma.

Azkenik, Zaintza Teknologikoko Sistema **UNE 166.006 Arauaren bermea du** 2012. urteaz geroztik, eta urterik urte ikuskaritzak egiten dira, ziurtagiri horri eusteko. Horrez gain, webguneak bestelako bereizgarri batzuk ditu; adibidez, Hon-Code ziurtagiria (informazioaren egiazkotasuna eta kalitatea) eta WIS (osasun-intereseko webgunea).

## C.MEMORIA EGITEKO METODOA

Oraingoan gizarte- eta enpresa-erantzukizunaren zazpigarren memoria, 2018. urteari dagokiona, aurkeztu dugu.

Txosten hau GRIk G3.1 Iraunkortasun memoriak egiteko gidan ezarritako betekizunen arabera prestatu da, B aplikazio-maila baterako, eta ez du inolako kanpoko organismo independenterik egiaztatu.

Memoriaren edukiak definitzeko, interes-taldeen lehentasunak aintzat hartu ditugu; izan ere, zerbitzu publikoko bokazioko proiektua osatzen dugu, gizarte- eta enpresa-erantzukizunaren arloan balio oso zehatzak dituena.

Azken urteotan sortutako printzipio eta errealitate horiek guztiak oinarri hartuta, memoria honetan denbora horretan eginiko jarduera guztiak jasotzeko konpromisoa dugu.

Dokumentu honetan jasotako metodoaren eta informazioaren helburua da ELIKAren jardueraren berri ematea eta jarduera hori argitu eta hurbiltzea, bere interes-talde guztiei begira.

Azaltzen diren adierazle edo ratio guztiak gure ohiko kudeaketa-tresnetatik lortu dira: Prozesuen kudeaketa (BIKAIN), kontuen urteko ikuskaritzak, Agintaritza Koadro Integrala, Plan estrategikoa (2017-2020), Kudeaketa-plana (2018), etab.

## 1) ELIKA FUNDAZIOAREN IZAERA

ELIKA Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzara atxikitako Fundazio Publikoa da, eta bere helburua EAEn Nekazaritzako Elikagaien Segurtasuneko gradu gorena lortzeko tresna izatea da.

Fundazioa 2001. urtean eratu zen, Elikagaien Segurtasunaren arloan ezinbestekoak diren jarduerak, ikerketak eta esperientziak sustatzeko, egituratzeko eta aholkularitza emateko. Garai hartatik, elikagaien ekoizpen-kateko operadoreei eskatzen joan zaizkien Elikagaien Segurtasunaren arloko exijentziak eta beharrak finkatu dira, baita administrazio publikoari ere, operadoreen aldetik exijentzia horiek betetzea zaindu eta kontrolatzeko.

Baldintza horiek guztiek ELIKA Elikagaien Segurtasuneko erreferente bihurtzen dute; izan ere, esperientzia eta ezagutzak biltzen ditu Elikagaien Segurtasunak barne hartzen dituen esparru guztietan, kudeaketaren bikaintasun ereduak ditu, eta gainera, inguru aldakorrari egokitzen joan da, bere lana garatuz bere jarduketa-esparruan interes-talde guztien parte-hartzea sustatuz.

18 urte norabide berean, eta xede berarekin: EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun-mailarik handiena lortzea.

### a. GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOKO POLITIKA

*Fundazio publiko gisa, gure bokazioa zerbitzua da. Gure helburua ez da soilik gure sortze-xedeak betetzea eta Euskadiko Elikagaien Segurtasuna hobetzeko lan egitea. Horrez gain, zorrotzagoak izan behar dugu gure gizarte-erantzukizunarekin, euskal gizarteak gugan inbertitzen dituen baliabideei balioa ateratzen saiatuz, eta hori etika, gizarte eta ingurumenaren arloko zenbait jokabide erantzule betez eginez.*

2017-2020 aldirako Plan Estrategikoarekin bat etorriz, ezagutzera eman nahi ditugu gure interes-talde guztiak. Halaber, gure ahalegin sendoena eta irmoena ezagutarazi nahi dugu, ELIKA erakunde bikaina, lehiakorragoa, solidarioagoa, gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituagoa eta eskuragarriagoa izan dadin.

Hau da gure mapa estrategikoa:




## b. GOBERNU-ORGANOAK

**PATRONATUA:** Patronatua da ELIKAren gobernuko, administrazioko eta ordezkaritzako organo gorena. Organo horrek bere mende ditu fundazioaren kudeaketaren zuzendaritzatik eta kontroletik eratorritako aginte guztiak, fundazioak ezarritako helburu guztiak betearazteko beharrezkoak direnak. Honako hau da gure patronatuaren egungo osaera:

| | | | |
|---|---|---|---|
| **PRESIDENTEA** | **Bittor Oroz**<br>Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea<br>Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila | | |
| **PRESIDENTEORDEA** | **Peli Manterola**<br>Berrikuntza eta Elikagaien Industrien zuzendaria<br>Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila | | |
| **IDAZKARIA** | **Rogelio Pozo**<br>AZTI-Tecnaliako zuzendaria | | |
| **BATZORDEKIDEAK** | **Asier Arrese**<br>Zuzendari-gerentea<br>HAZI fundazioa | **Juan José Aurrekoetxea**<br>Osasun Publikoa eta Adikzioak arloko zuzendaria<br>Osasun Saila | **Nora Abete**<br>Kontsumobideko zuzendaria |
| | **Leire Barañano**<br>NEIKER-Tecnaliako zuzendaria. | **Leandro Azkue**<br>Arrantza eta Akuikultura zuzendaria<br>Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila | |
| | **Mº Luz Ruiz**<br>Aurrekontuen arloko zuzendaria<br>Ogasun eta Finantzen Saila | **Ikerne Zuluaga**<br>Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren arloko zuzendaria<br>Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila | |

## c. ALIANTZAK ETA INTERES TALDEAK

Gure interes-talde nagusiak administrazioak, elikagaiak ekoizteko kateko operadoreak eta sektoreko agenteak dira, baita kontsumitzaileen elkarteak ere.




**BEZEROAK:** Gure ardatz nagusia dira, eta jarduerari buruzko informazio- eta gardentasun-harreman jariakorra dugu; izan ere, bezeroak ez ezik, Fundazioaren eragile ere badira.

- **Bezeroaren asebetetze-maila zein den (2017): 7,04**

**PERTSONAK:** ELIKAren balio garrantzitsuena dira, eta gure oinarria ezagutza denez gero, garrantzia berezia du erakundeko pertsona guztien prestakuntzak. Era berean, pertsona guztiok lan egiten dugu lan-giro atsegina lortzeko; izan ere, garapen profesionalerako eta bizitza pertsonala eta profesionala bateratzeko erraztasunekin batera, areagotu egiten dute gure zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen konpromisoa eta inplikazioa.

- **Elikako pertsonen asebetetze-maila (2018): 8,75**

**GIZARTEA:** Egiten dugun lana Elikagaien Segurtasunaren inguruko interesa duten kontsumitzaileei begira antolatuta dagoenez, uste dugu gizartea oinarrizko zutabea dela Fundazioaren jarduerarako. Hori dela eta, kezka handienak sortzen dituzten gaiak aztertu eta modu dibulgatzailean lantzen ditugu, kontsumitzaileengana iristeko, elikagaien segurtasunari buruzko informazioarekin.

- **Gizartearen asebetetze-maila (2017): 8,21**




## d. LAN-ARLOAK

ELIKAk ematen dituen produktu eta zerbitzuak honako lan-arlo hauetan antolatzen dira:

- Zaintza teknologikoa: informazio eguneratua eta interesgarria atzematea, Elikagaien Segurtasunaren arloan ezagutza sortzea sustatzeko, gure interes-taldeen eskura jartzeko, gure argitalpenen bitartez.
- Arriskuen analisia: helburu nagusia da euskal elikakatean sor daitezkeen arriskuei buruzko ezagutza ahalik eta zabalena lortzea. Horrela, administrazioari zientzia-oinarria eman dakioke, Elikagaien Segurtasuna handitzera bideratutako politikak sortzean.
- Ikerketa: Elikagaien Segurtasunarekin lotutako gaien inguruko ikerketa sustatzea eta, horretarako, Europako sareetan parte hartzea eta ikerketa-zentroei eta

Euskadiko unibertsitateei I+G+b proiektuetan laguntzea, Elikagaien Segurtasunaren arloan.

- Elikakatea: lehenengo sektoreko eta elikagaien eta pentsuen industriako Elikagaien Segurtasuna hobetzeko lagungarri diren ekintzak sustatzea eta egitea. Horretarako, informazioa eskaintzen da, proiektuak sortu eta prestakuntza-ikastaroak antolatzen eta ematen dira.
    - Nekazaritza
    - Animalien elikadura
    - Abeltzaintza
    - Arrantza
    - Elikagaien Industria

- Elikadura osasungarria: Nahiz eta elikakatean egindako lan bat izan, bereziki nabarmendu behar da Elikadura Osasuntsuarekin lotutako proiektuekin hasitako lana.
- Elikadura Iraunkorra: Gizarteak eskatzen digu elikadura iraunkorraren arloan lan egitea, eta hortik dator elikagaiak xahutzea murrizteko proiektuak eta halakoak eta elikadura zirkularra.

- Kontsumitzailea: kontsumitzaileak Elikagaien Segurtasunaren arloan hezteko ekintzak bultzatzen dira. Bestalde, elikagai bidezko balizko intoxikazioak murrizteko lagungarri diren higiene-ohiturak sortzen dira etxean.

## 2. KULTURA ESTRATEGIKOA

### d. ELIKAREN MISIOA




### e. ELIKAREN IKUSPEGIA

ELIKAREN IKUSPEGIA



ELIKAK EZAUGARRI HAUEK IZAN NAHI DITU **2020an:**

- **Euskadin erreferente** izan nahi du Elikagaien Segurtasunaren arloan.
- **Bikaina eta ezinbestekoa** izan nahi du administrazioarentzat, elikadura-kateko langileentzat eta euskal gizartearentzat.
- **Aurrerapausoak** eman nahi ditu kudeaketan eta lan kooperatiboan eta parte-hartzailean.
- **Kide** motibatuak, konpromisodunak eta gogobeteak izan nahi ditu.

## f. ELIKAREN BALIOAK

**PROFESIONALTASUNA:** : gaitasun teknikoa, kalitatezko lan erabilgarria, erabakitzaileak, eraginkorrak eta efizienteak.

**LANKIDETZA ETA ELKARLANA:** informazioa eta ezaguera partekatzea.

**KONFIANTZA:** fidagarritasuna, eskuragarritasuna eta tratu hurbila.

**EGOKIGARRITASUNA:** : egoera berrien aurrean behar errealetara egokitzea.

## g. HELBURU ESTRATEGIKOAK

**OE1**

Funetsezko tresna izatea Euskal Administrazioaren Elikagaien Segurtasunaren arloko politikak definitzeko eta ezartzeko.

**OE2**

Elikagaien Segurtasuna sustatzea elikagaien ekoizpen-katean.

**OE3**

Elikagaien Segurtasunari buruzko informazio eta komunikazioaren hedapena hobetzea eta indartzea.

**OE4**

Elikagaien Segurtasunaren arloan herritarrentzat erreferentea den erakunde bat izatera iristea.

**OE5**

Erakundean kudeaketa aurreratua eta berrikuntza sustatzea.

## h. 2018KO LORPENAK

Honako hauek dira **2018ko lorpenetako batzuk:**

✓ **Informazioaren komunikazioa eta difusioa (2018):**

- **174** albiste argitaratu webgunean
- **18** informazio-material (berezi@, artikuluak, kontsumitzailearen weba, liburuxkak/triptikoak eta bloga)
- **11** hileroko ELIKABerri buletin (harpidetza berriak), **8,95**eko asebetetze-maila.
- **6** txosten, lau hilean behingoak eta urtekoak, elikagai eta pentsuen alerten jakinarazpenei buruzkoak.
- Albisteak sare sozialen bidez (Twitter, Linkedin, Facebook, Google +, Youtube,…) zabaltzea: **6.928 jarraitzaile.**
- **45** eragin komunikabideetan (26 2017an)

Gure webgune BERRIAren bidez eskainitako informazio horren guztiaren ondorioz, batez beste **30.000 erabiltzaile ditugu** eta horrek **610.841 orrialde ikusi** (urteko bisitak) izana ekarri du.

- ✓ **Prestakuntza:**

  12 **prestakuntza-ekitaldi** antolatu dira, non **420 pertsonak** parte hartu baitute; nabarmentzekoa da batez besteko asebetetze-maila: 8,2.

  Elikakoak beste erakunde batzuek antolatu dituzten **23 jardunaldi edo ikastarotan hizlari gisa parte hartzeko gonbidatuak izan gara**, eta gure parte-hartzea handitu egin da, 2017koaren aldean.

  Era berean, **5 ekitaldiren Antolaketa Batzordeetan** parte hartu dugu:
  - ✓ Berdintasun Jardunaldia, 2018ko azaroa.
  - ✓ Pint of Science, 2018ko maiatzean
  - ✓ Animalien Elikagaien Kongresuan, Kordoban, 2018ko ekainean.
  - ✓ Valentziako Nazioarteko Unibertsitateko Elikagaien Osasunari buruzko Masterreko Adituen Batzordea.
  - ✓ Elikagaien Segurtasuneko Egun Nazionaleko Zientzia Batzordea

- ✓ **Nekazaritzako elikagaien kateko langileak.**
  - ✓ **172 eskabide** zehatz, informazioa emateko, gure interes-taldeen eskutik, zenbait gairen inguruan: % 43 administrazioak, % 37 elikagai-kateko operadoreak, % 10 zentro teknologikoak eta unibertsitateak, % 6 komunikabideak eta % 3 herritarrak.
  - ✓ **7 tresna Elikagaien Segurtasuna sustatzeko:**
    - Elikagaien arloko legeriari buruzko datu basea
    - Pentsuen arriskuen mapa
    - Elikagaien segurtasunaren arloko sektorekako betebeharrak
    - Webguneko atal berriak
    - WIKI-Elikagaien Segurtasuna
    - Kontsumitzaileentzako bloga
    - Elikagaiak hartzeko autokontrolaren aplikazioa
  - ✓ **Aholkularitza Euskadiko Pentsu Egileen Elkarteari (EPEA),** Lehengaien Kontrol Programan (APLIKA EPEA).

- ✓ Elikagaien Segurtasunarekin lotutako **administrazioaren 17 jarduera-lerrotan eta 40 lantaldetan parte hartzea:**
  1. Elikagaiek sor litzaketen arriskuen analisia: Batzorde Zientifikoko, Batzorde Kudeatzaileko eta Arriskuen Mahai teknikoko idazkaritza teknikoa.
  2. Sailen arteko komunikazio-estrategia elikagaiek eragindako krisiak daudenean: lan-taldeak dinamizatzea eta kasu praktikoak diseinatzea.

3. Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotako baldintza higieniko-sanitarioak egokitzeko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen dekretuaren zirriborroa egitea.
4. Lehengaien kopuru txikiak EAEn zuzenean saltzeko araudi-esparrua ezartzea.
5. Elikakatearen Kontrol Ofizialeko Plana: aholkularitza eta lan-taldeen dinamizazioa.
6. 2017-2020 Elikagaien Segurtasuneko Ikerketako Koordinazio Plana: ikerketa-mahaiaren dinamizazioa, 2017 proiektuen segimendua eta 2018an garatzeko proiektuak identifikatzea.
7. Horizonte 2020: aholkularitza aditu autonomiko gisa, Europako Batzordeko 2. gizarte-erronkako 2018-2020 Lan Programan.
8. Abeltzaintzan antibiotikoen erabilera murrizteko jarduketaren erakundeen arteko programa.
9. Euskadin Q Sukarraren Zaintza eta Kontrol Plana.
10. Elikagaien xahubiderako Euskal Estrategia: Egoera aztertzea.
11. DEyC komunikazio-taldea: erakunde publikoen komunikazioa koordinatzeko foroan parte hartzea.
12. Euskadiko Elikadura eta Gastronomia Plana
13. Elikadura Osasungarriaren Plana, Osasun Sailarena: diseinatzeko eta martxan jartzeko lan-taldeetan parte hartzea.
14. 2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programan parte hartzea, eta, HAZIrekin batera, Elikadura Zirkularraren Funtsezko Proiektuko buru izatea.
15. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren RIS3 estrategia (PCTI2020)
16. Nekazaritza eta elikaduraren sektoreko eta landa zein itsasertzeko ingurunean lankidetza-berrikuntza sustatzeko foroa (KATILU).
17. Fauna Basatiaren Zaintza Plana

## DIMENTSIO EKONOMIKOA

### i. BALIOA HANDITZEA

ELIKAn jarduera eta zerbitzuen balioa handitzeko konpromiso sendoa dugu. Horrela, gure interes-taldeei eta bereziki gizarteari, ematen dizkiguten baliabideak itzuliko dizkiogu.

Gure lana erabateko gardentasunaz egiten saiatzen gara, eta, horretarako, jendaurrean jartzen ditugu Fundazioaren datu ekonomiko ikuskatuak. Erabateko gardentasunez lan egiten saiatzen gara, jendearen eskura jarrita fundazioaren datu ekonomiko ikuskatu guztiak. Gainera, lan-gai ditugun baliabideen kudeaketan eraginkortasuna bilatzeko, horiek kontrolatzea eta etekin handiena lortzea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzen ditugu.

2012. urteaz geroztik BIKAIN kudeaketa-tresnarekin lan egiten dugu, eta horrek bide ematen digu erakundearen aurrerapen-maila ezagutzeko, plangintza estrategikoa, urteko kudeaketa eta hileko kudeaketa integratuz, eta proiektuen garapen-maila kontrolatuz (halaber egiten da horietara bideratutako baliabide guztiekin). 2015. urtean tresna hori behin betiko finkatzeko jarraitu dugu lanean. 2018. urtean tresna hori behin betiko finkatzeko jarraitu dugu lanean.

ELIKAren jarduera-markoa Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikorako Bulegoak ezarritako betekizunekin osatzen da. Horiek guztiak “Gobernu arduratsuaren gida”-n eta “Barne-kontrolaren funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua”-n daude ezarrita.

Nabarmentzeko datu gisa aipatu nahi dugu aurreko urteetan lortu dugun informazioaren gardentasuna indartu egin dugula. Aipatzeko moduko datua da aurreko urteetan informazio-gardentasun sendoagoa lortu genuela. Aurten ere gardentasuna areagotzen jarraitu dugu, eta gure interes-taldeei jakinarazi diegu garden jokatuko dugula ekonomiaren, kudeaketaren eta egindako proiektu eta zerbitzuen inguruko datuekin. Egiten ditugun proiektu eta jardueren % 100etik % 100 bihurtu dira gure webgunearen bidez argitaratutako informazio. www.elika.eus

### j. BALANTZEA ETA EMAITZEN KONTUA

ELIKAko kudeaketa-taldeak Jardueren Plana aurkezten du urtero, eta Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna Sailak aurrekontua ematen dio. 2015eko aurrekontua 612.174,22 €-koa izan da. 2018. urterako aurrekontua 600.000,00 € izan zen.

Aurrekontu horrekin, Urteko Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduerak garatzen dira, patronatuak onetsia. Elika fundazio gardena a, eta, hiru hilean behin, gastuaren hileko segimendu ekonomikoa egiten du eta hura Eusko Jaurlaritzari bidaltzen dio. Gainera, datu ekonomiko guztiak bere webaren bidez argitaratzen ditu eta, urtero, ikuskaritza independentea egiten du; haren txosten osoa gure webgunean argitaratzen da.

| AKTIBOA | Oharrak | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|---|
| **A) AKTIBO EZ ARRUNTA** | | **0** | **0** |
| I.- Ibilgetu ukiezina | **5** | 0 | 0 |
| Aplikazio informatikoak | | 0 | 0 |
| III.- Ibilgetu materiala | **6** | 0 | 0 |
| Instalazio teknikoak eta bestelako material ibilgetua | | 0 | 0 |
| **B) AKTIBO ARRUNTA** | | **235.095** | **238.016** |
| IV.- Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk | **8** | 2.610 | 45 |
| Zenbait zordun | | 2.610 | 45 |
| VIII.- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | | 232.485 | 237.971 |
| Diruzaintza | | 232.485 | 237.971 |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | | **235.095** | **238.016** |

| ONDARE OSOA ETA PASIBOA | Oharrak | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|---|
| **A) ONDARE OSOA** | | **120.656** | **163.214** |
| **A-1) Funts propioak** | **9** | **120.656** | **163.214** |
| I.- Zuzkidura fundazionala | | 486.668 | 486.668 |
| II.- Erreserbak | | 6.800 | 6.800 |
| III.- Aurreko ekitaldietako soberakinak | | (330.254) | (370.460) |
| IV.- Ekitaldiko soberakinak | | (42.558) | 40.206 |
| **C) PASIBO ARRUNTA** | | **114.439** | **74.802** |
| III.- Epe laburrerako zorrak | **8** | 3.723 | 719 |
| Zorrak kreditu-erakundeekin | | 1.394 | 719 |
| Bestelako finantza-pasiboak | | 2.329 | 0 |
| IV.- Zorrak taldeko enpresekin eta epe motzerako elkartutakoekin | **8** | 8.958 | 8.178 |
| VI.- Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk | **8** | 101.758 | 65.905 |
| Hornitzaileak | | 65.242 | 39.598 |
| Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak) | | 0 | 54 |
| Beste kreditu batzuk herri-administrazioekin | **10.1** | 36.516 | 26.253 |
| **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA** | | **235.095** | **238.016** |

# 1) GIZARTE-DIMENTSIOA

## a. TALDE PROFESIONALA

Pertsonak dira ELIKAren politikaren ardatz nagusia. Beraz, familiako eta laneko bizimodua bateratzea, aukera-berdintasuna, hazkunde profesionala sustatzea eta laneko segurtasuna eta osasuna oinarrizko ardatzak dira pertsonen kudeaketan.

ELIKAko giza taldea diziplina askotarikoa da; zehazki, zenbait adarretako zortzi profesionalek (elikagaien teknologoak, biologoak, albaitariak) osatzen dute. Guztiek dute esperientzia Elikagaien Segurtasunaren alorrean, elikakateko katebegietan.




Fundazioko pertsonen kudeaketari buruzko informazioa emate aldera, langileei, azken urtean eginiko prestakuntza-saioei eta langileen gastuei buruzko datuak eransten ditugu. Aurten, hutsik zegoen lanpostu bat bete da; beraz, beteta daukagu plantilla, 9 pertsonakoa, eta pertsona bat daukagu eszedentzia bat betetzen.

| | | |
|---|---|---|
| **ADINAK** | 35 eta 49 urte artean | 8 |
| | 50 eta 55 urte artean | 1 |
| **GENEROA** | Gizonak | 3 |
| | Emakumeak | 6 |
| **IKASKETA-MAILA** | Goi-mailako tituludunak | 9 |
| **LANBIDE KATEGORIA** | Helbidea | 1 |
| | Teknikariak | 8 |
| | Administrariak | 0 |
| **ANTZINATASUNA** | Antzinatasun handiena | 18 urte. |
| | Batezbestekoa | 11 urte. |
| **KONTRATU MOTA** | Mugagabeak | 100% |
| | Aldi baterakoak | 0 |
| **PLANTILLAREN TXANDAKATZEA** | Altak | 1 |
| | Bajak | 0 |

ELIKAn, konpromiso irmoa dugu gure langileekin, ez bakarrik lan-arlokoa, baita pertsonala ere. Une oro bilatzen dugu pertsonen lan-asebetetzea areagotzea eta, horretarako, proiektu berritzaileak dinamizatzen eta bilatzen ditugu eta enpresan prestakuntza jasotzea sustatzen dugu.

| PRESTAKUNTZA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|
| Prestakuntza jasotzen duten langileen % | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Prestakuntza-orduak guztira | 138 | 167 | 137 | 301 |
| Pertsona bakoitzak jasotzen dituen prestakuntza-orduak | 23 | 28 | 23 | 38 |
| Prestakuntzaren eraginkortasunari buruzko balorazio globala (100etik) | 83.3 | 81.9 | 82.6 | 81.6 |

